



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ogasun eta Finantza

Programa: 010 Zerbitzu Orokorrak

2016ko Aurrekonturako helburuak

02 - Sendotzea eta aurrera egitea zerbitzu publikoaren kontzeptua barneratzeko bidean

04 Departamentuko organo eta unitateen jarduketak koordinatzea eta haiei aholkua ematea

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
02.1 Genero ikuspuntua Departamentuaren araugintzan aplikatzea	Txostenak	6	8	
04.3 Genero ikuspuntutik tratatzea kontratazio espedienteak, diru laguntzen emakidak, komunikazioak eta urteko planean jasotako beste jarduketa batzuk	Urteko planaren exekuzioa	1	1	

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: OGASUNA ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA .

Programa: 020 Laguntza eta Herritarren Arreta

2016ko Aurrekonturako helburuak

1. Ekintzak bultzatzea zerga obligazioak borondatez bete daitezen laguntzeko.
2. Antolaketa eta zerbitzuak herritarren eskarietara egokitzea

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
1.1 Zerga heziketako modulu bat ezartzea DBHko 4. mailatik aurrera.	Ikastetxeak	10	30	Parte hartu zuten emakumezko ikasle kopurua : 694 (49%) Parte hartu zuten gizonezko ikasle kopurua: 668 (51%)
2.1 Kalitateko zerbitzu balioaniztunak garatzea, euskararen erabilera eta aukeren berdintasuna sustatzeko, eta herritarrei zerga obligazioak ulertzea eta betetzea errazteko.	Herritarren gogobetetze inkestak	2	3	Galdetutako emakume kopurua: 658 (56%) Galdetutako gizon kopurua: 520 (44%)

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ogasun eta Finantza

Programa: 100. Zerga Administrazioa

2016ko Aurrekonturako helburuak

05 Zerga sarreren banaketa genero ikuspegitik zabaltzea

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
05.1. Zerga sarreren banaketari buruz dagoen informazioa generoaren ikuspegitik ezagutaraztea.	PFEZ kanpaina	1	1	Departamentuko web-orrian jasotzen da, behin kanpaina amaituta eta datuak eskuragarri daudenean, aitortzaileen sexuan oinarritutako azterketa. Txostenaren helburua da PFEZren ezaugarri nagusiak aztertzea eta beraien bilakaera azaltzea, aitortzaileen sexua kontuan hartuta.

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ogasun eta Finantzak

Programa: 200 Aurrekontuak eta Finantzak

2016ko Aurrekonturako helburuak

01. Emaizetara bideratutako aurrekontua prestatzea sektore publikoan, Kudeaketa Plan Estrategikoarekin lerrokatuta.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
01.3. Aurrekontua eta Kontu Orokorra generoaren ikuspegitik aztertzea. Generoaren ebakuazio txostena.	Dokumentuak	2	2	2016ko Aurrekontua: 2016ko aurrekontua prestatzeko jarraibide teknikoetan bazegoen genero genero ikuspegiari buruzko berariazko atal bat, honako jarraibideak jasotzen dituena: - Genero ikuspegiko programen azterketa prozesutik ateratako helburu, ekintza eta indikadoreak aurrekontu programara eramatea. - Helburu bakoitzean ekintzak genero ikuspuntutik garrantzizkoak diren ala ez eta portzentai bat adieraztea. - Ekintza hauek aurrekontuko partidekin erlazionatu behar dira, "Aurrekontuen kudeaketa orokorra. Partidari egintzak egokitu.Egintzak egokitu" portzentaia adieraziz. 2016ko aurrekontuaren lantzean, Garrantzi handi eta ertaineko aurrekontu programetako helburuak berrikusi dira, programa horietan genero helburuak ageri ziren egiaztatzeke. Garrantzi handi eta ertaineko 34 programetatik (ULIAZPI eta KABIA barne), 26k badituzte genero berdintasunerako helburu edota ekintza espezifikoak. Aldiz, garrantzi txikiko 46 programetatik, 5ak baino ez dute agertzen genero ikuspegiaren erreferentziarik. Balorazioa: positiboa da, nahiz eta indarra egin behar izango litzateke programen analisitik ondorioztatutako helburu, ekintza, adierazle eta antzekoak aurrekontu programetara eramateko. Garrantzi txikiko programetan ere genero ikuspegitik egokiak diren helburu edo ekintzak sartu behar dira (hizkera ez sexista,



				kontratazioa,...) Genera -inpaktu ebaluazio txostenari buruzko Liburukian (2016rako Aurrekontuko VII. Liburukia), Departamentuek landutako fitxak sartu ziren: garrantzi handiko 19 fitxa ((ULIAZPI eta KABIA barne), garrantzi ertaineko 14 fitxa eta garrantzi txikiko 11 fitxa 2015 Kontu Orokorra: Oro har, 2015eko betetze mailari buruz programa gehien balorazioa positiboa izan zen. Kasu askotan konturatu ziren lerro desberdinetako datuak sexuaren arabera edukitzearen garrantziaz; izan ere, hori da lehenengo pausua, egon daitezkeen generoen arteko arrailak identifikatzeko, eta neurri egokiak hartzeko. Programa gehienetan genero ikuspegia sartu zen bai kontratuen esleipeneko administrazio klausula berezien orrietan, bai dirulaguntzen balorazio teknikoetan, eta baita laguntzak ematerakoan ere. 2017ko Aurrekontua: 2017ko aurrekontua prestetzeko jarraibide teknikoetan hurrengoa adierazten zen: -Genero ikuspegia aurrekontu politikan sartzeko prozesuarekin jarraituz, haren azterketa aurrekontu programaren fitxaren barruan sartu da. -Genero ikuspegitik garrantzitsuak diren programa guztiek honako hauek jaso behar izan dituzte, programaren barruan: garrantzi mailari buruzko informazioa; kolektiboa eta programak eragindako ahalmenak eta ikuspegi horretatik duen behararen deskribapen zehatza. -Genero ikuspegitik goi eta erdi mailako garrantzia duten programa guztiek programan adierazi behar izan dute Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Planarekin (2012-2020) duten trazabilitatea. 2017rako aurrekontuaren lantzean, departamentuetako programa guztietan sartu da genero ikuspegia (Zor Publikoko eta Erakundeekiko Konpromisokoak, izan ezik). Haietatik, 31k garrantzi handia edo ertaina dute, eta 42k garrantzi txikia. Era berean, garrantzi handiko hiru entitate sartu dira (ULIAZPI, KABIA eta KIROLG, SA) eta garrantzi txikiko lau entitate (IZFE, SA, BIDEGI, SA, ETORLUR, SA, eta SUESKOLA).
--	--	--	--	---



B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ogasuna eta Finantzak

Programa: 300 Zerga eta Finantza Politika

2016ko Aurrekonturako helburuak

02 Departamentuak kudeatzen dituen gaien araudia garatzea, zerga sistema ekitatiboagoa eta banakorragoa izan dadin, betiere genero ikuspegia kontuan hartuta.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
02.2 Araudia aldatzeko proiektuen txostenak prestatzea: txosten juridikoa, ekonomikoa eta genero eraginarena./	Txostenak	18	17	Zerga sistema ikertzeko eta aztertzeko zereginaren barruan zenbait txosten egin dira aitortzailearen sexua kontuan hartuta. Horrela, Foru Ogasunean aurkeztutako aitorpenen datu estatistikoak argitaratu dira, honako zerga hauetan: PFEZ, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga, Lan etekinen atxikipenek urteko aitorpena... Balorazioa positiboa da, izan ere, izaera pertsonaleko zerga garrantzitsuen informazio oso interesgarria aurkeztu da generoaren ikuspuntua kontuan hartuta. Eta hori baliagarria izan daiteke zerga sistema definitzerako orduan hartu behar diren erabakietan. Zerga araudiko proiektu aldaketak bakoitzeko genero eraginaren txosten bat egiten da. Bertan, arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra egiten da, bere genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa eta atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere. Balorazioa positiboa da, izan ere, gure zereginetan genero ikuspuntua barneratzeaz gain, analisi horiek direla-eta emakumeentzat positiboak diren zenbait neurri hartu dira. Esaterako, PFEZn langileak enpresan parte hartzeagatik dagoen kenkariaren aldaketan: sexuen artean dagoen arraila murrizteko, emakumeentzat zenbateko handiagoak ezarri dira aplikatu daitekeen gehieneko mugan.



B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ogasuna eta Finantzak.

Programa: 400 Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioa

2016ko Aurrekonturako helburuak

1. Genero ikuspuntutik, aurkeztutako erreklamazio ekonomiko-administratiboen analisia.
2. Genero ikuspuntutik, erreklamazioetan legezo eta borondatezko ordezkarien azterketa.
3. Genero ikuspuntuaren sarrera prozedura administratiboetan: ezarpena, finkapena eta jarraipena.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
1.1. Ezartzea kudeaketa tresnaren aldaketa, erreklamazioen datuak aztertzeko genero ikuspuntutik ustiatu ahal izateko.	%100 burutua	Genero ikuspuntutik, zergen araberako datuak lortu. Bereziki aztertzen dira momentuan ezagutzen den joeratik urruntzen direnak.
2.1. Ezartzea kudeaketa tresnaren aldaketa, genero ikuspuntutik erreklamazioetako ordezkarien datuak ustiatu ahal izateko.	%98 burutua	Aplikazioa aldatu egin da. Emaizten garbiketa fasean dago. Hurrengo ekitaldian emaitzak eskainiko ditu.
3.1. Aztertzeko genero ikuspuntutik Auzitegiak parte hartzen duen prozedurak.	Egokia	Genero ikuspuntua kontuan hartzen da Auzitegiak erabiltzen dituen prozeduretan.